

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Enpresaren jarduera aurrera eramateko, beharrezkoa ikusten dugu inguruko enprekin lankidetzan aritzea, kalitate ezin hobea bermatzeko eta bertako ETEak sustatzeko. Honela, gure funtsezko elkarteak hauek izango dira:

Lehenik, Gasteizko **Bionekazaritza** elkartearekin kolaboratuko dugu, gure hornitzaile nagusiak izango direlarik. Haiekin hitzarmen bereziak egingo ditugu prezio merke eta lehiakorrak lortzeko, gerora gure bezero gazteen ekonomiarentzako eskuragarriak izango diren produktuak saldu ahal izateko.



Bigarrenik, bertako nekazaritzaren bitartez lortu ezin daitezkeen produktuak eskuratzeko (Kafea, Txokolatea, azukrea...), **Denda Mundi** bidezko merkataritzako dendara joko dugu.



Horretaz gain, gure produktuak sartzeko edukiontziak desegingarriak direnez, **Euskalvaso** enpresa bizkaitarrarekin harremanetan jarriko gara hornigai horiek lortzeko. Edukiontzi hauek, birziklatuak eta birziklagarriak dira, eta honela ingurumenarekiko konpromezua hartzen dugu.

Gainera, **Eraman** banaketa enpresarekin aktiboki kolaboratuko dugu, enpresa honen bidez gure produktuak bezeroen etxeetara helaraziz; eta aldi berean bertako merkataritza eta lan duina sustatuz.



Azkenik, **Eusko Jaurlaritzarekin** merkataritza hitzarmen bat egingo dugu, gizarte kezkak (bizitza osasungarria, gazteen garapena, kultura, ingurugiroa...) gure gain hartzen ditugunez, horren truke diru laguntzak jasoko ditugu; gerora Gazte Txartelaren bitartez egindako deskontuak ekonomikoki estaltzeko erabiliko ditugunak.